

BESTELAKO XEDAPENAK

GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

91

AGINDUA, 2017ko azaroaren 21ekoa, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuarena, zeinaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzen baita Fundación Osotu Lanbarri Fundazioaren eraketa.

Ikusi da Fundación Osotu Lanbarri Fundazioaren eraketa Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskriba dadin eskatzeko aurkeztutako espedientea.

AURREKARIAK

Lehenengoa.– Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailean eskabide bat sartu zen, Güeñesko (Bizkaia) Fundación Osotu Lanbarri Fundazioaren eraketa Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko; María del Mar Hernández Olea andreak sortu zuen fundazio hori. Eskariari espedienteko agiriak erantsi zitzaizkion.

Bigarrena.– Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzaren Aholku Batzordearen 2017ko irailaren 28ko bileraren ondoren, bidalitako agirietan atzemandako akatsak zuzentzeko eskatu zien Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroak interesdunei; 2017ko azaroaren 7an sartu ziren eskatutako agiriak.

Hirugarrena.– Fundazioaren estatutuen 3. artikuluan ezarritakoaren arabera, fundazioak interes orokorreko helburu hauek ditu:

«1.– Ikasleen garapen integralari erantzuten dion hezkuntza sustatzea, bereziki ikasketa arautuen barnean.

2.– Haur Hezkuntzako bigarren ziklotik batxilergorako itundutako ikastetxe pribatu baten kudeaketa bere dimentsio guztietan, OSOTU hezkuntza-proiektu osoaren filosofiarekin bat, zeinetan ikasle orok baititu dimentsio anitzeko ikasketarako giroak (kognitiboa, fisikoa, emozionala eta soziala).

3.– Kalitatean, bikaintasunean eta berrikuntzan oinarritutako «hezkuntza-kultura» berri bat sustatzea, zeinak bere ikuspegia zentratuko baitu ikaslegoaren azterketan eta helduaroan ikasle horiek lortu behar izango dituzten exijentzietan (erritmo ezberdinak, ikasketa-mota ezberdinak, dituzten indarguneak...), baita hori guztia gertatuko den testuinguru emozional, sozial eta fisikoren azterketan ere.

4.– Curriculumean «adimen emozionala» sartzea indartzea, zeharka ikasgai guztietan eta oinarritzko hezkuntza osoan zehar –haur hezkuntza eta batxilergoa barne–, zentzumen anitzeko ikasketaren kontzeptua eta alfabetatze eta kudeaketa emozionalaren funtsezko garrantzia barne.

5.– IKTak barne hartzea ikasketan beste dimentsio bat ematen duen tresna gisa, baina ez papearren ordezkotako gisa.

6.– Ikasketa kooperatiboa bultzatzea ikasketa-tresna bat bezala, soziala, kasu honetan. «Elkarbizitzen ikastea» eta «izaten ikastea» bezalako kompetentziak aintzat hartuz.

7.– Berriazko prestakuntza-programak sortzea hezkuntza-premia bereziko haurrentzat. Haur horiei eta haien familiei emandako arretaz kezkatuta dauden elkarrekin elkarbanatutako dinamikak proposatzea, jarduera horiek, ahal den heinean, jarduera nagusien barnean inskriba daitezela sustatuz eta erraztuz, egiazko integrazioa ahalbidetzeko oinarriko arau gisa.

8.– Programa psikopedagogiko batzuk sortzea sustatzea, ikertzeaz gain, gizarteak oro har balia ditzakeen hezkuntza-ekintza berritzaileak sortuko dituen.

9.– Haurtzaroarekiko errespetua eta haurren eskubideen defentsa sustatzea.

10.– Sariak eta bekak sustatzea hezkuntza-eremuan.

11.– Eskolaz kanpoko jardueran bultzatu, garatu eta koordinatzea.

12.– Prestakuntza arautuaren osagarri diren eskola-jarduerak sustatzea. Balioetan sakontzea eta haurtzaro zoriontsua, autonomia, erabakitze-, jardun-, ekimen-gaitasunduna bultzatzea ahalbidetzen duena, etorkizuneko herritar kritikoa eta gogoetatsua izan daitezen.

13.– Fundazioa osatzen duten erakundeen arteko lankidetzak-programak elkarri erraztera bideratutako jarduerak koordinatu eta kontrolatzea (ikasleen praktikak, prestakuntza-ikastaroak, ikerketa-programetarako lankidetzak-hitzarmenak...)».

Laugarrena.– Estatutuen 4. artikuluan ezarritakoaren arabera, fundazioaren helbidea hau izango da: Lanbarri 10, Güeñes (Bizkaia). Fundazioak Euskal Autonomia Erkidegoan gauzatuko du, bereziki, bere jarduna.

Bosgarrena.– Fundazioaren hasierako dotazioa 30.000 eurokoa da; hasieran, 7.500 euro ipiniko dira, eta gainerakoa bost urteko epean, eratzeko eskritura publikoa egilesten denetik aurrera.

Seigarrena.– Patronatuari dagokio fundazioa ordezkatu, administratu eta gobernatzea. Patronatuko kideek dohainik beteko dituzte beren karguak, hala baitago xedatuta fundazioaren estatutuetan.

Zazpigarrena.– Hasierako patronatuko kideak, fundazioa eratzeko eskrituran ezarritakoaren arabera, hauek izango dira lau urtez, eta hautagai izateko aukera izango dute berriro:

– Lehendakaria: Aitor Baltziskueta de Marcos.

– Lehendakariordea: Jon Macías Santiago.

– Bokala: Marcos González Notario.

– Idazkaria (ez-patronoa): Mario Barturen Lavilla.

Izendatutako guztiek onartu dituzte karguak, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 9ko 9/2016 Legearen 16.2 artikulua ezarritako moduetako batean.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.– Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuak eman behar du, agindu bidez, estatutuak aldatzeko espediente honi buruzko ebazpena; honako arau hauetan xedatutakoarekin bat etorri: Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 3.1 artikulua; Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzari buruzko Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 100/2007 Dekretuaren 4.1.a) artikulua; Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio sailak

sortu, ezabatu eta aldatzeko eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzeko Lehendakariaren azaroaren 26ko 24/2016 Dekretuaren 6.1.m) artikulua, eta Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 11ko 71/2017 Dekretuaren 3.1 artikulua.

Bigarrena.– Hartarako legitimazioa daukan pertsona batek sustatu du espediente. Espedienteari, bestalde, funtsezkotzat jotzen diren datuak eta agiriak erantsi zaizkio, eta bereziki bete da Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 9/2016 Legearen 7.etik 12.erako eta 51.2 artikuluetan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 36., 37., 38. eta 39. artikuluetan ezarritakoa. Aplikatzekoak diren legeetan eta erregelamenduetan ezarritakoarekin bat etorrita eratu da fundazioa.

Aipatutako arauak eta oro har kasu honetan aplika daitezkeen gainerakoak ikusirik, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzea, egun honetan eta F-427 erregistro-zenbakiarekin, Güeñesko (Bizkaia) Fundación Osotu Lanbarri Fundazioaren eraketa, eta bai Patronatuaren hasierako osaera ere. Kide horiek zazpigarren aurrekarian agertzen dira, eta denek ere espresuki onartu dituzte euren karguak, betiere bat etorritz 2017ko otsailaren 27an Andrés María Urrutia Badiola notarioaren aurrean egiletsitako eskritura publikoan ezarritako zehaztapenekin (protokolo-zk.: 299). Eskritura publiko hori notario beraren aurrean 2017ko azaroaren 2an egindako eskritura publikoaz zuzendu zen (Protokolo-zk.: 1.770).

Bigarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea eta interesdunei bidaltzea.

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez dakioke Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuari, hilabeteko epean, agindua jakinarazi eta hurrengo egunetik hasita; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, agindua jakinarazi eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko azaroaren 21a.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburua,
JOSU IÑAKI ERKOREKA GERVASIO.